



HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN ARAUDI ORGANIKOA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



ZIOEN ADIERAZPENA

1978ko Konstituzioak parte-hartze politikoa aurreikusten du, nola eta Estatuko erakunde desberdinetan parte hartuko duten pertsonak, sufragio unibertsalaren bitartez, libreki, zuzenean eta isilpean hautatuz. Horrek, funtsean, ordezkari publikoen hautaketara bideratzen du herritarren parte-hartzea.

Bestelako parte-hartze esperientzien balorazioa izan liteke gure errealitate propioa aztertu eta ebaluatzeko lehenengo maila. Esperientzia horiek ez onartzeak parte hartze prozesuetatik kanpo uzten du herritarren parte handi bat, eta erabakia hartzea Udalaren edo dena delako aginte-arganoaren esku uztea dakar berekin, guztion iritzi edo interesetatik aparte.

Gasteizko Udalak, gizartearen parte-hartzeko gaitasunari zentzua emateko beharraz jabeturik, herritarren parte-hartzea onartu, bermatu eta sustatuko du, dela banaka, dela gai jakinen inguruan bildutako talde eta foroen bitartez, gizarte-gaiak, kultura, hezkuntza, kirola, ekonomia, kontsumitzaileen eskubideak, lan-kontuak, berdintasunerako politikak nahiz beste jorratzen dutelarik ere.

Aintzat hartu beharra dago herritarren parte-hartzeak eskain ditzakeen aukera berriak, baita parte hartzeko bideak ematen dituen esparru horretan lor litezkeen helburuak ere. Orobat aztertu beharko da zer ahulezia agertuko diren herritarren parte hartzea bideratzeko prozesua taxutzerakoan, erakunde honen egungo egitura dena izanik. Halaber, parte-hartzeko prozesuetan aurrera egiteko elkarte eta taldeei zer nolako zailtasunak sor dakizkien atzeman beharra dago.

Horretarako, Udalak konpromisoa hartzen du modu progresiboan parte-hartze foro bat sortzeko, herritarrek protagonismo handiagoa izan dezaten bertan. Hau da, modu efektiboan parte har dadila udalerrri osoari dagozkion gai publikoen kudeaketan, hartara Estatu Espainiarreko nahiz Europar Batasuneko beste hiri batzuetan dagoeneko garatzen ari den parte-hartze demokratiaren eredua zertu dadin.

Araudi honekin bitartez, Gasteiz moderno, aktiboa, dinamikoa eta sozialki bat egina lortu nahi du erakunde honek. Guztion ardura da arau hauek eraginkor eta baliagarri bihurtzea, baita berdintasunezko demokrazia hobea, askeagoa eta zuzenagoa lortzeko aukera hau onik baliatzea ere.



ATARIKO TITULUA

1. artikulua.

Gasteizko udalerriko herritar guztiei informazioa eman eta horien parte-hartzea bideratzeko moduei, bitartekoei eta prozedurei buruzko arauak biltzea du xede araudi honek. Orobat du xede herritarrek Udalaren eskumeneko gai publikoetan zuzenean parte hartzeko bideak zehaztu eta hobetzea, hartara udalerrriaren hobekuntzan murgildu eta esku-hartzea errazago gerta dakien.

2. artikulua.

Araudi honetan adierazten diren bide eta tresnetako edozein baliatzen delarik ere, euskara erabiltzeko aukera bermatuko du Gasteizko Udalak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Planean jasota dagoen moduan.

LEHEN TITULUA.- HERRITARREN ESKUBIDEAK

I. kapitulua.- Informaziorako eskubidea

3. artikulua.- Informaziorako eskubidea

Udal jarduerari eta horien aurrekariari buruzko informazioa —eta, batez ere, udal zerbitzuei eta bideratutako ekintzei buruzkoa— jasotzeko eskubidea bermatzen die Gasteizko Udalak herritarrei, indarrean dauden lege xedapenen eta araudi honen arabera, Konstituzioaren 105. artikuluan aurreikusitako mugekin. Gehienez hilabeteko epean erantzun beharko zaie informazio-eskariei.

4. artikulua.- Udal jardueren zabalkundea

Udal arau, erabaki eta, oro har, jarduerari zabalkundea emango zaie, herritarrek horien berri izaterik izan dezaten eta, horrenbestez, beren eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzerik. Informazioak argia izan beharko du, eta eskuragarri egon, eta herritar guztiengana iritsi.

Herritarrei laguntzeko bulegoetan eta udal hedabideetan egon beharko du eskuragarri informazioak.

Herritarrei kalitateko informazioa eman beharra dago, eta behar adina, ez bakarrik udal jarduera behar bezala ulertzerik izan dezaten, baizik eta baita, batez ere, hori epaitu eta beren iritzi propioa edukitzerik izan dezaten.

Berariazko dokumentazioa taxutuko da abian diren planei buruz.

Saihestu egingo da udal jardueren gaineko informazioan balorazioak txertatzea, eta dauden aukera desberdinen zehaztasunak emango dira, baita dena delako erabakia hartzeko izandako arrazoi objektiboak ere.

5. artikulua.- Interes publikoko informazioa



Interes publikoko zirkunstantziek hala egitea eskatzen dutenean, eta eskumena duen udal organoak adostasuna agertu ondoren, udal erabaki eta xedapenen berri emango zaio udalerrian bizi den populazioari, buletin ofizialetako arauzko argitalpena gorabehera.

6. artikulua.- Udal artxibo eta erregistroetako informazioa eskuratzea

Udal artxibo eta erregistroetako dokumentazioa eskuratu ahal izango dute herritarrek, Administrazio Prozedura Erkidearen Legeren eta horrekin bat datozen xedapenen ildotik. Arrazoiak agertzen direlarik egin beharko da eskaria, Udal Erregistro Nagusiaren bitartez, Udalak une bakoitzean horretarako herritarren esku jartzen dituen bitartekoak baliaturik.

Gehienez ere hilabeteko epean eskuratuko da informazioa —eskabidea udaletxeko Erregistro Nagusian aurkezten denetik kontatuta—, udaletxean bertan eta leku egokian.

Finkatutako denbora betetzeko orduan atzerapenik izanez gero, arrazoiak agertu beharko dira, eta interesdunari idatziz jakinarazi. Informazioa eskuratzeko ezintasuna legezko arrazoietan baino ezingo da justifikatu, ebazpen arrazoitua dela medio.

7. artikulua.- Herritarrei Laguntzeko Zerbitzua

Herritarren eskariei modu zuzen eta eraginkorrean erantzuteko, Udalak Herritarrei Laguntzeko Zerbitzu bat du, zeinek Herritarrei Laguntzeko Bulegoen sarea, 010 telefono zerbitzua eta Udalaren webgunea baliatzen baititu bere helburuak betetzeko. Hauek dira Herritarrei Laguntzeko Zerbitzu horren eginkizunak:

- a) Herritarrei harrera egitea, aurreko artikuluetan aipatzen den informazioaren alorreko jarduera guztia bideratzeko, baita herritarrei bisitaren hasierako unean behar duten orientabide eta laguntza guztia emateko ere.
- b) Udalak bere baitan hartzen dituen organo eta zerbitzu desberdinen xedeei, eskumenei eta funtzionamenduari buruzko informazioa ematea. Halaber, bideratu nahi dituzten proiektu, jarduera edo eskabideak bideratzeko beharrezko diren administrazio-prozedura eta -tramiteen gaineko argibideak eta laguntza praktikoa ematea herritarrei.
- c) Herritarren kexa eta erreklamazioak jaso, dagokion sailera bideratu eta jarraipena egitea.
- d) Beste administrazio publikoen zerbitzu eta eskumenei buruzko informazioa ematea.
- e) Udalaren Sarrera eta Irteera Erregistroa eta Udal Errolda.
- f) Baimenak, lizentziak eta ziurtagiriak eskuratzeko kudeaketa, eskaintza eta lehiaketen oinarriak banatzea, baldintza-orriak banatzea eta abar, baita duten presagatik nahiz erraztasunagatik berehalakoan erantzuteko modukoak diren tramite eta ebazte-jarduerak ere.
- g) Herritarrek nahiz elkarteek idatziz egindako ekimen, iradokizun, eskari eta proposamenak jasotzea.
- h) Udalak dituen norberaren datuei buruzko informazioa eskuratu, zuzendu eta deuseztatzeko eskubideaz baliatzeko aukera bermatzea herritarrei.

Udalak, kasu bakoitzean eskumena duen organoaren bitartez, herritarrek egindako proposamen, ekimen eta eskariei erantzuten zaiela bermatu beharko du.

Sinadura elektronikoaren erabilera sustatuko du Gasteizko Udalak, garatzen diren lege eta araudiei jarraiki, administrazio publikoak eraberritu eta gero eta gehiago eta etengabe herritarrengana hurbiltzeko prozesuaren barruan.

8. artikulua.



Herritar guztiek izan dezaten informazioa eskuratzeko modurik, informazio guneak jarriko dira erabilera publikoko udal aretoetan, Udalaren intranetara lotura dutelarik, kontsultak egitea, informazioa eskatzea eta beste errazteko.

9. artikulua.- Udalaren hedabideak

Udal hedabideak sustatuko ditu Udalak, eta horietaz baliatu ahal izateko aukera emango herritarrei nahiz Herritar Erakundeen Udal Erregistroan izena emana duten elkarteei. Udal hedabideen erabilera errazteko, bideak eta epeak finkatuko dira, hedabidearen ezaugarrien eta agertutako interesaren arabera. Halaber, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak baliatuko dira ahalik eta gehien errazteko udal informazioa eta herritarren parte-hartzea.

10. artikulua.- Udal Kazeta

Indargabetua

11. artikulua.

Indargabetua

12. artikulua.- Webgunea

Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabilera sustatuko du Udalak webgunearen bitartez, honetarako aukera emango baitu:

1. Toki-administrazioaren kudeaketak errazteko.
2. Administrazioaren gardentasuna hobetzeko, bertan eta udalerrian sortzen den izaera publikoko informazio guztia txertatuz sarean.
3. Udal administrazioiko tramiteak egiteko.
4. Herritarrei bertako elkarte-sarearen berri emateko.
5. Herritarrei dauden partaidetza-organo eta prozesuen berri emateko.
6. Udal talde politikoen ekimen eta proposamenen, batzordeetan egindako galdeen, udalbatzan aurkeztutako mozioen, proposamenen eta besteren gaineko informazioa eta xehetasunak emateko.
7. Erabat dinamikoa izango da Udalaren webgunea, eta aukera berriak bideratuko ditu: udalbatzaren bilkurak *on line* ematea eta beste.
8. Elkarteek eta herritarrek udal kudeaketaren inguruko beren iritziak azaldu ahal izateko — Herritarren postontziaren bitartez helarazi beharko dira iritziak, iradokizunak, kritikak edo proposamenak—.

13. artikulua.- Iritzia jasotzeko galdeketa eta azterlanak

Herritarren iritzia jasotzeko galdeketak egingo ditu Udalak, edozein udal zerbitzuren funtzionamenduaz nahiz munta handiko bestelako gaiez egiten duten balorazioaren berri izateko.

14. artikulua.

Bere hedabideen bitartez emango ditu ezagutzera Udalak egiten dituen galdeketen emaitzak. Hala eskatzen duten herritarrei aukera emango die horietan erabilitako agiriak eta fitxa teknikoa kontsultatzeko, hilabeteko epean, eskaria egiten denetik kontatuta, eta leku egokian.



15. artikulua.- Kalitateari buruzko inkestak

Kalitateari buruzko inkestak egingo dizkie Udalak bertako langileei eta udal zerbitzuak baliatzen dituzten pertsoneri.

16. artikulua.

Ekimena sortu zen organoan emango ditu ezagutzera Udalak kalitateari buruzko inkestaren emaitzak eta fitxa teknikoa; orobat emango du horien berri udal hedabideen bitartez nahiz bestelako hedabide lokaletan. Erabilitako agiriak kontsultatu ahal izango dituzte herritarrek, eta, hala eskatuz gero, gehienez hilabeteko epean eman beharko zaie aukera hori.

II. kapitulua.- Eskatzeko eskubidea

17. artikulua.

Pertsona guztiek, fisikoek nahiz juridikoek, banaka nahiz taldeka, eskatzeko eskubidea baliatu ahal izango dute, zeinen bitartez Udalaren eskumeneko gaietan eskariak egin ahal izango baitituzte, edo argibideak eskatu udal jardueren gainean. Gehienez ere hilabeteko epean ebatzi beharko dira eskari horiek. Atzerapenik izanez gero, horren arrazoia berri eman beharko da.

Azaroaren 12ko 4/2001 Lege Organikoan araututa dago eskubide hori.

18. artikulua.

Eskariek iradokizun bat nahiz ekimen bat barne hartu ahal izango dute, edo kexa bat nahiz erreklamazio bat azaldu udal eskumenen arloan.

Ez da onartuko udal eskumenekoa ez den xedea duen eskaririk. Halaber, ezingo dira onartu Espainiako Konstituzioaren 29. artikuluan aurreikusitako eskatzeko oinarritzko eskubidetik eratorritakoak bestelako berariazko titulu batean babestu beharrekoak direnak ere, ezta berariazko prozedura formalizatua duten gaietara dagozkienak ere.

19. artikulua.

Arazoia agertzen direlarik egin beharko da eskaria, Udal Erregistro Nagusiaren bitartez, Udalak une bakoitzean horretarako herritarren esku jartzen dituen bitartekoak baliaturik.

III. kapitulua.- Herritarren proposatzeko eskubidea

20. artikulua.

Herritar guztiek dute eskubidea udal eskumeneko edo interes lokaleko gaietan jardueraren proposamenak edo iradokizunak egiteko edozein udal agintari edo organori zuzentzeko.

21. artikulua.

Udal Erregistroan egin beharko da, formalki, proposamena.

22. artikulua.



Banaka nahiz taldeka baliatu ahal izango da eskubide hori.

23. artikulua.

Alkateak edo hark ordezeko izendatzen duen zinegotziak aztertuko du proposamenaren edukia, eta proposamena egin duenari idatziz jakinaraziko nola bideratuko den, gehienez ere hilabeteko epean hura erregistroan aurkeztu zuenetik kontatuta. Udal talde guztiak jarri beharko dira eskari horien jakinaren gainean.

IV. kapitulua.- Herri-ekimenerako eskubidea

24. artikulua.

Udal hauteskundeetan hautatzeko eskubide aktiboa duten herritarrek herri ekimena baliatu ahal izango dute, erabaki edo jarduera proposamenak nahiz araudi proiektuak aurkeztuz udal eskumeneko gaien inguruan.

25. artikulua.

Ekimenaren sustatzaileek argi eta garbi identifikatuta egon beharko dute, eta udalerrian erroldatutako adin nagusikoen ehuneko 10aren sinadura erkatuak bildu beharko dira, indarrean dagoen legediarekin bat etorritz.

26. artikulua.

Indargabetua

27. artikulua.

Udalbatzan eztabaidatu eta bozkatu beharko da ekimena, gaiaren arabera dagokion organoak ebatzi ahal izango badu ere. Nolanahi ere, udalbatzaren idazkari nagusiaren legezketasunari buruzko txostena beharko da aldez aurretik, baita udal kontu-hartzaile nagusiaren txostena ere, ekimenak eduki ekonomikoa duten udal eskubide eta betebeharrei eragiten badie. Behar diren legezketasun-txostenak egin ondoren —eta txosten horiek udalbatzaren Idazkaritza Nagusian daudelarik—, Eledunen Batzarraren hurrengo bilkuran aztertuko da ekimena.

28. artikulua.

Herri-kontsulta lokala egiteko proposamena jaso ahal izango du ekimenak; halakoetan, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 71. artikuluan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 80, 81 eta 82. artikuluetan eta Herritar-kontsulten Araudi Organikoan aurreikusitako prozedura eta betebeharren arabera bideratuko da.

V. kapitulua.- Herri-ekimenerako eskubidea, interes publikoko jarduerak sustatzeko

29. artikulua.



Herritarren ekimena parte hartzeko modu bat da, zeinen bitartez herritarrek Udalari eskatzen baitiote udal eskumeneko ekintza edo jarduera jakin bat, interes publikoa duena eta irabazte xederik gabekoa, bidera dezala, bi aldeek jartzen dituztelarik behar diren baliabide ekonomikoak, ondasunak, eskubideak nahiz lan pertsonala.

30. artikulua.

Edozein pertsona edo pertsona-taldek aurkeztu ahal izango du herritarren ekimen bat, erakunde edo elkarten bitartez.

31. artikulua.

Udalak ekimen bat jasotzen duenean, informazio publikora aterako du hogeita hamar eguneko eperako, salbu eta premiazko arrazoiak direla-eta epe hori laburragoa izatea komeni bada.

32. artikulua.

Hilabeteko epean —jendaurreko erakustaldia bukatzen den egunaren biharamunetik kontatuta— eztabaidatu eta bozkatu beharko da ekimena eskumena duen organoan. Batez ere ekimenaren interes publikoa hartuko du aintzat erabakiak. Ez da interes korporatiboen edo taldeen aldeko proposamenik onartuko, ezta interes orokorren kontrakorik ere, edo horren edukia ezinezkoa, konstituzioaren edo legearen kontrakoa bada edo delitu izan badaiteke.

Dena delako erabakia hartu aurretik, argibide osagarriak eskatu ahal izango dizkio Udalak proposamena egin duen taldeari.

33. artikulua.

Udalak herritarren ekimena onesten badu, jendaurrean jakinaraziko du nola eta zein egutegiri jarraiki bideratuko den.

VI. kapitulua.- Herri-kontsultarako eskubidea

34. artikulua.

Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearekin eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearekin bat etorritz, Herritar-kontsulten Araudi Organiko baten bitartez arautuko da kontsulta-eskubidea, bertan jasoko baitira horretarako legitimatutako pertsonak, kontsulta motak eta kopurua, kontsulta-prozesuaren prozedurak eta emaitzen lotura-maila.

35. artikulua.

Indargabetua

36. artikulua.

Indargabetua

37. artikulua.

Indargabetua



VII. kapitulua.- Entzunaldi publikorako eskubidea

38. artikulua.

Alkateak nahiz hark ordezko izendatzen duen zinegotziak entzunaldi publikoa emateko eskubidea dute herritarrek. Halakoetan, berariazko bilkurak egingo dira, nahi duten guztientzat irekiak, udal eskumeneko gaien inguruko informazioa jasotzeko nahiz entzunak izateko.

39. artikulua.

Jendaurreko entzunaldirako deialdia alkateak egingo du, dela bere ekimenez, dela herritar erakunde eta elkarteek eskatuta, baita herritar partikularrek eskatuta ere, baldin eta, edozein kasutan ere, gutxienez entzunaldia egin nahi den esparruan erroldatuta dauden adin nagusikoen ehuneko 1aren sinadura erkatuak aurkezten badira.

40. artikulua.

Entzunaldia eskatzen dutenek arrazoiak biltzen dituen idazki bat aurkeztu beharko dute Udal Erregistroan, jorratu beharreko gaiaren gaineko txostena eransten dutelarik. Dokumentazioa jaso ondoren, entzunaldi publikorako deialdia egingo du alkateak, eta hurrengo 30 egunen barruan egin beharko da bilkura.

41. artikulua.

Arauz, eta aurrekontuei nahiz ordenantza fiskalei hasierako onespina eman aurretik, Aurrekontuei eta Ordenantza Fiskalei buruzko Entzunaldi Publikorako deialdia egingo da, eta bertan aurkeztuko aurrekontuak, ahalik eta modurik ulergarrienean, eta entzunaldi horren ondoren elkarteek nahiz herritarrek alegazioak eta iradokizunak aurkezteko epea zabalduko da.

42. artikulua.

Halaber, entzunaldi publikorako deialdia egingo die alkateak munta handiko jarduerak eragiten dieten herritarrei.

VIII. kapitulua.- Udalbatzaren batzordeetan eta udalbatzaren osoko bilkuretan esku hartzeko eskubidea

43. artikulua.- Herritar-erakundeek udalbatzaren batzordeetan parte hartzea

Herritar Erakundeek Udal Erregistroan izena emana duten herritar-entitateek udalbatzaren batzordeetan parte hartu ahal izango dute, ez bilkuraren gai-zerrendako gaietan bakarrik, baizik eta baita beren intereseko beste edozein gairen gainean ere, udalbatzaren araudi organikoan adierazitako moduan.

Herritarren txandan parte hartzeko eskabideak, herritarren ekimenak eta herri-ekimenak bilkura baino gutxienez bost lanegun lehenago erregistratu beharko dira.

Izenpetzen dituztenen identifikazio pertsonala jaso beharko dute beti ere, baita harremanetarako telefono edo helbide elektronikoko bat ere.

44. artikulua.- Herritarren txanda osoko bilkuretan



Dagokien erregistro ofizialean izena emana duten herritar erakundeek azalpenak eman ahal izango dituzte udalbatzaren aurrean, gai-zerrendako punturen baten inguruan, haren araudi organikoan finkatutako moduan.

Orobat aurkeztu ahal izango dituzte ekimenak kontrol-jardueran, beren intereseko edozein gairen inguruan, eta loturarik gabeko herritarren txanda egingo da halakoetan, Udalbatzaren Araudi Organikoan xedatutakoaren ildotik. Udalbatzaren bilkura bakoitzean herritarren mozio edo ekimen bakarra eztabaidatuko da, eta loturarik gabeko herritarren txanda bakarra izango.

Herritarren txandan parte hartzeko eskabideak parte hartzea eskatzen den udalbatzaren bilkuraren gai-zerrendaren inguruan udal taldeei entzuteko deitzen den Eledunen Batzarra egiten den eguneko 12:00ak baino lehenago erregistratu beharko dira.

Izenpetzen dituztenen identifikazio pertsonala jaso beharko dute beti ere, baita harremanetarako telefono edo helbide elektronikoko bat ere.

Udalbatzaren aurrean hitz egiteko eskabidean hitza hartuko duen pertsonaren izena adierazi beharko da. Ondoren, udal taldeen eledunek argibideak eskatu ahal izango dituzte.

45. artikulua.- Gasteizko Udalak udal hedabideetan argitaratuko ditu, garaiz, udalbatzaren batzordeen eta udalbatzaren beraren bilkuren gai-zerrendak.

II. TITULUA.- ELKARTEEN SUSTAPENA

I. kapitulua.- Herritar Erakundeen Udal Erregistroa

Kapitulu hau indargabetu egin da.

46. artikulua.- Erregistroaren helburuak

Indargabetua

47. artikulua.- Izena emateko aurkeztu beharreko agiriak

Indargabetua

48. artikulua.- Izena eman dezaketen erakunde motak

Indargabetua

49. artikulua.- Izen-ematea ebaztea

Indargabetua

50. artikulua.- Datuak aldatzea

Indargabetua



51. artikulua.- Izen-ematearen indarraldia

Indargabetua

52. artikulua.- Erregistroko datuak udal organoei ematea

Indargabetua

53. artikulua.- Datuen publikotasuna

Indargabetua

54. artikulua.- Erregistroko datuen ziurtagiria

Indargabetua

II. kapitulua.- Udalak elkarteak eta boluntarioen jarduera sustatu eta bultzatzeko duen borondatea

55. artikulua.

Herritarrek beren udalerriarekin duten konpromisoaren adierazpen kolektiboetako bat dira elkarteak, eta boluntarioak, berriz, berorien adierazpiderik engaiatuen eta eraldatzaileenetako bat.

Herritar elkarte eta taldeek beren jarduerak berme osoz bideratzerik izan dezaten, laguntza hauek emango ditu Udalak, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuaren bitartez:

- Elkarte mugimendua kudeatu, dinamizatu eta bultzatzeko prestatu eta gaitzeko programak, herritar mugimenduaren beraren parte hartzearekin antolatutakoak.
- Aholkularitza-zerbitzua, partaidetza- eta kudeaketa-maila desberdinetan.
- Elkarteentzako berariazko baliabideak.

III. kapitulua.- Herritar erakundeen parte-hartzea udal organoetan

56. artikulua.

Udalbatzaren Araudi Organikoan arautzen da herritar-entitateek udalbatzaren bilkuretan eta bestelako udal organoetan izango duten parte-hartzea. Herritar-entitate lokaletan antolatutako herritarrak parte-hartzeko eskubideaz benetan balia daitezzen baldintza egokiak sortzeko Udalak duen borondate politikoaren adierazpen argia da hori.

III. TITULUA.- HERRITARREN PARTE-HARTZE ORGANOA

Parte-hartze organo guztiak kontsulta-organoak dira, arauzko txostena egingo dute behar izanez gero, eta proposamen eta iradokizunak aurkeztuko.

I. kapitulua.- Elkarguneak

57. artikulua.- Definizioa



Kontsulta- eta aholkularitza-organoak dira elkarguneak, zeinen xede baita Udalak eskumena duen bizitza lokaleko gai jakinen inguruan herritarren partaidetza bideratzea, komunikazioa ahalbidetzea, iritzia kontrajarri eta eztabaidatzea eta haien proposamenak lantzea.

Organo berriak sortzeko edo lehendik daudenak aldatzeko aukera gorabehera, elkargune hauek eratuko dira:

- Garapenerako lankidetzak,
- Osasuna eta kontsumoa,
- Euskara,
- Adinekoak,
- Bizikidetzak eta aniztasuna,
- Ingurumena,
- Mugikortasun iraunkorraren herritar foroak,
- Animalien bizikidetzak, defentsa eta babesa,
- Berdintasuna,
- Gazteria eta
- Auzokideen partaidetza

58. artikulua.- Xedea

Udalak eskumena duen bizitza lokaleko gai jakinen inguruan entitateen eta herritarren partaidetza sustatu eta bideratzea dute xede elkargunek, eta, horrenbestez, irizpenak edo proposamen zehatzak helarazi beharko dizkiote aldian-aldian zeinek bere arloan eskumena duen udalbatzaren batzordeari, udal talde politikoek eztabaida ditzaten —eta, hartara, herritarrek udalerriko gaietan ardura handiagoa hartu ahal izan dezaten beren gain—.

59. artikulua.- Elkargune berriak sortu eta aldatzea

Udalbatzak erabakiko du, alkatearen proposamena dela medio, elkargune berriak sortzea edo lehendik daudenak aldatzea.

60. artikulua.- Elkarguneen osaera

- Udalbatza osatzen duten talde politikoek ordezkaritza bana.
- Gai jakinekin edo sektoreko kontuekin zerikusia duten edo arlo horretan interesa duten herritar-entitateen, erakundeen eta kolektiboen ordezkaritza.
- Kolektibo horietako pertsonen artetik elkargunearen ordezkaritza bat aukeratuko da, edo bat baino gehiago, zeinek zeregin hauek izango baititu:
 - o Elkargunearen bilkurak gidatzea.
 - o Elkargunea ordezkatzea, Gizarte Kontseiluan, herritarren partaidetzarako udalbatzaren batzordeetan eta beharrezkotzat jotzen den edozein lekutan.



- Elkargunearen eta sortzen diren lantaldeen bilkuren gai-zerrendak eta deialdiak egitea, elkargunearen erreferentziazko zerbitzuko teknikariekin koordinatuta.
- Orobat izan ahalko dira bertako kide banakoak, hala eskatzen eta beren interesa arrazoitzen dutelarik, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuaren bitartez.
- Elkargune bakoitzaren erreferentziazko udal zerbitzu edo saileko teknikariak arduratuko dira honako hauetaz:
 - Elkargunearen ordezkariari aholkuak eta laguntza emateaz, lan-agenda kudeatzeko.
 - Gaiak aztertzeke beharrezkoa den udal dokumentazioa biltzeaz.
 - Udal sailekin koordinatzeaz.
 - Bilkuren dinamizazioa kudeatzeaz, eta horietatik ateratzen diren txosten edo ondorioak argitaratzeaz, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuarekin batera.

61. artikulua.- Zereginak

Hauek dira elkarguneen zereginak:

- Eragindako edo interesa duten pertsona, entitate eta kolektiboen partaidetza zuzena sustatzea, informazioa emateko, akuilatzeke eta dena delako esparruko gaien jarraipena egin ahal izateke beharrezko diren mekanismoak ezarriz.
- Elkarte-mugimendua bultzatu eta sustatzea, baita banako laguntza eta elkarteen artekoa ere.
- Elkargunearen xede den esparrura zuzendutako programa eta jardueretan Udalari proposamenak egitea eta horiek abian jartzen laguntzea.
- Udalak aurkeztutako gaiak eztabaidatu eta baloratzea, baita elkarguneak aztertu beharrekotzat jotzen dituenak ere, hala eskatzen duelarik; bereziki, dagokion arloko urteko programei buruzko informazioa, segimendua eta ebaluazioa.
- Elkargunearen esparruko gaietan diharduten erakunde edo entitate publiko nahiz pribatuen arteko koordinazioa sustatzea.
- Udal politika eta jarduera integralen aplikazioa sustatzea, pertsonen eskubideak aldezte aldera.
- Gizarte zerbitzuen alorrekin zerikusia duten azterlan, txosten eta jarduerak sustatzea.
- Arrazoiak adieraziz egiten delarik eskaria, elkargunearen intereseko gaiei buruzko informazioa biltzea.

62. artikulua.- Funtzionamendu-arau orokorrak

1.- Deialdiak:



- a) Elkarguneen ordezkariak arduratuko dira bilkuren deialdiak egiteaz eta gai-zerrendak prestatzeaz, erreferentziako udal zerbitzu edo saileko teknikariekin koordinatuta.
- b) Elkargunean parte hartzeko interesa erakutsi duten entitate eta pertsoneri bidaliko zaizkie, bilkura baino gutxienez 10 egun lehenago, behar den dokumentazioa erantsita, baldin badago. Epe berarekin, webgunean argitaratuko dira deialdiak, herritarrek horien berri izaterik izan dezaten.
- c) Premia arrazoiengatik, aparteko bilkuretarako deialdia bilkura baino hiru egun lehenago egin ahal izango da.

2.- Lantaldeak:

Beharrezkotzat jotzen diren lantalde edo foroak —edo foro tematikoak— sortu ahal izango dira. Orobat egin ahal izango dira beste elkargune, auzogune edo partaidetza-foro batzuekin koordinatzeko saioak, aztertzen diren gaien arabera.

3. Txostenak:

- a) Bilkura guztien txostenak igorriko zaizkie elkarguneko kideei. Txostenak publikoak izango dira, eta gehienez hamabost eguneko epean —bilkura egiten denetik— eskuragarri izango dituzte interesdunek.
- b) Edozein herritarrek ere eskuragarri izango ditu aktak udalaren webgunean.

4.- Etengabeko ebaluazioa:

Ebaluazio-adierazleak finkatuko dira, funtzionamendu-helburuak eta elkarguneek udal politikan duten eragina aintzat harturik, beharrezkotzat jotzen diren doitzak eta hobekuntzak egite aldera.

63. artikulua.- Funtzionamendurako barne araudia

Elkarguneak eratu ondoren, are gehiago zehaztu ahal izango dituzte beren funtzionamenduarauak, beharrezkotzat jotzen badute.

II. kapitulua.- Auzoguneak

64. artikulua.- Definizioa

Gasteiz hiriko zona edo auzo batzuei eta besteei eragiten dieten lurralde-eremuko eta udal-eskumeneko gai eta kontuen inguruan herritarren proposamenak eztabaidatu eta lantzeko organoak dira auzoguneak.

Udal-jardueraren zona desberdinak kontuan izanik, eta besterik sortu edo daudenak aldatzeko aukera gorabehera, auzogune hauek eratuko dira:



ZONA	AUZOAK
ALDABE	Alde Zaharra, Koroatzea, Zabalgunea
PILAR - IPARRALDE	Lovaina, Gazalbide, Txagorritxu, San Martin, Pilar, Aranbizkarra, Zaramaga
IBAIONDO	Ibaiondo, Lakuabizkarra
JUDIMENDI	Done Jakue, Arana, Arantzabela, Anglo, Judimendi, Santa Luzia, Babesgabetuak
HEGOALDE	Adurtza, Errekaleor, San Kristobal, Aretxabaleta, Mendizorrotza, Ariznabarra, Zabalgana
LAKUA	Abetxuku, Ehari-Gobeu, Sansomendi, Lakua 05, Lakua-Arriaga
SALBURUA	Salburua

65. artikulua.- Xedea

Beren zona edo auzoko bizitzari eragiten dioten gaien inguruan entitateen eta herritarren arteko gogoeta bateratua proposatu, sustatu eta bideratzea dute xede, eta irizpenak edo proposamen zehatzak helaraztea aldian-aldian Partaidetza Batzorde politikoari, udal talde politikoek eztabaida ditzaten, eta, hartara, herritarrek udalerriko gaiari dagokienez beren gain ardura handiagoa har dezatela ahalbidetzea.

66 artikulua.- Auzogune berriak sortu eta aldatzea

Udalbatzak erabakiko du, alkatearen proposamena dela medio, auzogune berriak sortzea edo lehendik daudenak aldatzea.

67. artikulua.- Osaera

Hauek osatuko dituzte auzoguneak:

- Udalbatza osatzen duten talde politikoaren ordezkari bana.
- Herritar-entitateen, erakundeen eta zona edo auzoan bizi diren edo beren jardura bertan garatzen duten kolektiboaren ordezkariak —ez da betekizuna izango elkarrean erregistro ofizialetan izena emanda egotea—.
- Parte hartzen duten herritar-entitateetako pertsonen artean elkargunearen ordezkari bat aukeratu da, edo bat baino gehiago. Zeregin hauek izango ditu:
 - Auzogunearen lan-bilkurak gidatzea.
 - Auzogunea ordezkatzeko, herritarren partaidetzarako udalbatzaren batzordeetan eta beharrezkotzat jotzen den edozein lekutan.
 - Auzogunearen eta sortzen diren lantaldeen bilkuren gai-zerrendak eta deialdiak egitea, erreferentziazko gizarte-etxeko zonako lantaldeetako teknikariek koordinatuta.
- Orobat parte hartu ahal izango dute banakoek, hala eskatzen eta beren interesa arrazoitzen diotelarik Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuari.



- Erreferentziako gizarte-etxeko zonako lantaldeetako teknikariak arduratuko dira honako hauetaz:
 - Auzogunearen ordezkariari aholkuak eta laguntza emateaz, lan-agenda kudeatzeko.
 - Gaiak aztertze beharrezkoa den udal dokumentazioa biltzeaz.
 - Udal sailekin koordinatzeaz.
 - Bilkuren dinamizazioa kudeatzeaz, eta horietatik ateratzen diren txosten edo ondorioak argitaratzeaz, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuarekin batera.

68. artikulua.

Edozein unetan, eta aztertu beharreko gaiak hala eskatzen dutelarik, herritarren partaidetzarako organo eta foroen ordezkariak gonbidatu ahal izango dituzte auzoguneek, beharrezkotzat jotzen badute.

69. artikulua.

Indargabetua

70. artikulua.- Zereginak

Oro har, hauek izango dira auzoguneen funtsezko eginkizunak: alde batetik, Udalaren, entitateen eta auzotarren arteko elkarrizketa bultzatzea, dena delako lurralde jakineko bizitzaren alorreko gaien inguruan, eta, bestetik, zona edo auzoko eta udalerriko arazo orokorrez jabetzea, udalerrri osoa aintzat hartzen duen ikuspegitik.

Hauek dira auzoguneen zereginak:

- Eragindako edo interesa duten pertsona, entitate eta kolektiboen partaidetza zuzena sustatzea, informazioa emateko, akuilatze eta zona edo auzoko gaien jarraipena egin ahal izateko beharrezko diren mekanismoak ezarriz.
- Elkarte-mugimendua bultzatu eta sustatzea, baita banako laguntza eta elkarten artekoa ere.
- Auzogunearen xede den esparrura zuzendutako programa eta jardueretan Udalari proposamenak egitea eta horiek abian jartzen laguntzea.
- Udalak aurkeztutako gaiak eztabaidatu eta baloratzea, baita auzoguneak aztertu beharrezkotzat jotzen dituenak ere, hala eskatzen dutelarik; bereziki, dagokion esparruko urteko programei buruzko informazioa, segimendua eta ebaluazioa.
- Auzogunearen esparruko gaietan diharduten erakunde edo entitate publiko nahiz pribatuen arteko koordinazioa sustatzea.



- Udal politika eta jarduera integralen aplikazioa sustatzea, pertsonen eskubideak aldezte aldera.
- Gizarte zerbitzuen alorrarekin zerikusia duten azterlan, txosten eta jarduerak sustatzea.
- Arrazoiak adieraziz egiten delarik eskaria, auzogunearen intereseko gaietarako buruzko informazioa biltzea.

71. artikulua.- Funtzionamendu-arau orokorrak

Herritarrek gai publikoetan parte hartzeko funtsezko elementu bihurtu behar dute auzoguneei. Udal arloek horien lana bultzatu eta koordinatu beharra daukate.

Horregatik, auzogune guztiek funtzionamendu-arau orokor hauek bete beharko dituzte:

1.- Deialdiak:

- a) Auzoguneei ordezkariek arduratuko dira bilkuren deialdiak egiteaz eta gai-zerrendak prestatzeaz, erreferentziazko gizarte-etxeko zonako lantaldeetako teknikariekin koordinatuta.
- b) Auzogunean parte hartzeko interesa erakutsi duten entitate eta pertsonetara bidaliko zaizkie, bilkura baino gutxienez 10 egun lehenago, behar den dokumentazioa erantsita, baldin badago. Epe berarekin, webgunean argitaratuko dira deialdiak, herritarrek horien berri izaterik izan dezaten.
- c) Premia arrazoiengatik, aparteko bilkuretarako deialdia bilkura baino hiru egun lehenago egin ahal izango da.

2.- Lantaldeak:

Beharrezkotzat jotzen diren lantalde edo foroak —edo foro tematikoak— sortu ahal izango dira. Orobat egin ahal izango dira beste elkargune, auzogune edo partaidetza-foro batzuekin koordinatzeko saioak, aztertzen diren gaien arabera.

3. Txostenak:

- a) Bilkura guztien aktak igorriko zaizkie auzoguneko kideei. Txostenak publikoak izango dira, eta gehienez hamabost eguneko epean —bilkura egiten denetik— eskuragarri izango dituzte interesdunek.
- b) Edozein herritarrek ere eskuragarri izango ditu txostenak Udalaren webgunean.

4.- Etengabeko ebaluazioa:

Ebaluazio-adierazleak finkatuko dira, funtzionamendu-helburuak eta auzoguneei udal politikan duten eragina aintzat harturik, beharrezkotzat jotzen diren doitzak eta hobekuntzak egite aldera.

72. artikulua.



Auzoguneak eratu ondoren, are gehiago zehaztu ahal izango dituzte beren funtzionamenduarauak, beharrezkotzat jotzen badute.

73. artikulua.

Auzoguneek bilkura bateratuak egin ahal izango dituzte, zona edo auzo desberdinei edo udalerr osoari eragiten dieten gaiak jorrazteko. Orobat bultzatuko dira auzoguneen arteko koordinazio-mekanismoak, baita horien eta elkarguneen artekoak ere.

III. kapitulua.- Gasteizko Udalerriko Gizarte Kontseilua

74. artikulua.- Definizioa

Gasteizko Udalerriko Gizarte Kontseiluak udalerriko partaidetza-organo guztiak ordezkatzen ditu, munta handiko gaiak nahiz izaera estrategikoa duten edo gizarte-garapenean eragina duten proiektuak eztabaidatu, proposamenak egin eta informazioa emateko. Partaidetza-organoen gogoeta bateratua sustatu eta bideratzea du xede, udalerritari bere osotasunean eragiten dioten gai estrategiko handien inguruan.

75. artikulua.- Xedea

Indargabetua

76. artikulua.- Eratzea

Indargabetua

77. artikulua.- Osaera

Hauek osatuko dute Udalerriko Gizarte Kontseilua:

- Partaidetza-organo egonkorrek izendatzen dituzten ordezkariek eta kontzejuen elkartearen ordezkarri batek, zeinek nekazaritza-eremua ordezkatuko baitu.
- Eratu ondoren, egokitzat jotzen dituen beste kide batzuk izendatzeko proposamenak egin ahal izango ditu.
- Berariazko zereginen bat uzten bada beraren gain, beste gizarte-eragile eskudun batzuen laguntza eskatu ahal izango du.
- Ez da lehendakaririk izango, baina bai udalbatzaren batzordeetan parte hartzeko ordezkaririk.
- Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuko teknikariak arduratuko dira mahai horien ordezkariei lan-bilkuren edukiak koordinatzen eta kudeatzen laguntzeaz.

78. artikulua.- Gizarte Kontseiluaren zereginak

Hauek dira Gizarte Kontseiluaren zereginak:

- Udal ordenantza fiskal eta prezio publikoen proiektuen eta aldakuntzen gaineko nahitaezko txostena egitea.
- Urteko aurrekontu-proiektuaren gaineko nahitaezko txostena egitea.



- Hiri Antolamenduko Plan Orokorren gaineko nahitaezko txostena egitea.
- Udal proiektu estrategikoen gaineko txostenak egitea.
- Herritar-kontsulten gaineko nahitaezko txostenak egitea.

Partaidetza-organoen funtzionamenduaren jarraipena eta ebaluazioa egitea, baita partaidetza-planarena ere, bere osotasunean.

79. artikulua.- Funtzionamendu-arau orokorrak

Udalerriko Gizarte Kontseilua, gutxienez ere, hiru hilean behin bilduko da. Eta lan-batzordeak eratu ahal izango ditu, jorratu beharreko gaien arabera.

Behar diren baliabideak jarriko ditu Udalak kontseiluaren funtzionamendu egokia bermatzeko, eta, zentzu horretan, laguntza-organo gisa jardungo du Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak.

Kontseiluaren bilkuren gai-zerrendak bilkura-eguna baino hamar egun lehenago finkatuko dira, ordezkari batzuen eta besteen proposamenak bertara biltzerik izan dadin, eta une bakoitzean erabilgarri dauden udal hedabideen bitartez emango dira argitara.

Udalerriko Gizarte Kontseiluaren bilkuren aktak bertako kideei, alkateari, Tokiko Gobernu Batzarrari eta talde politikoei igorriko zaizkie, eta laburpen bat argitaratuko da Udalaren hedabideetan.

80. artikulua.

Gizarte Kontseilua eratu ondoren, are gehiago zehaztu ahal izango ditu bere funtzionamendu-arauak, beharrezkotzat jotzen badu.

IV. TITULUA.- HERRITARREN ESKUBIDEAK ALDEZTEA

I. kapitulua.- Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Berezia

81. artikulua.- Definizioa eta tipologia

Udal administrazioaren aurrean auzotarren eskubideak aldezteko, Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Berezia sortuko du udalbatzak, eta izaera organikoko arauen bitartez arautuko da horren funtzionamendua.

82. artikulua.- Eratzea

Osoko bilkuran onetsiko du Udalak Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Berezia sortzea, eta alkateak izendatuko ditu, dekretu bidez, bertan izango diren ordezkariak.

83. artikulua.- Osaera

Udalbatzan ordezkapena duten talde guztien ordezkariak osatuko dute Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Berezia, hartan dituzten kideen kopuruekiko proportzioan, hain zuzen ere.

84. artikulua.- Zereginak



Udal administrazioaren jarduera ikuskatu ahal izango du batzorde horrek, eta aurkeztutako kexen eta udal zerbitzuen funtzionamenduan atzemandako akatsen berri eman beharko dio udalbatzari, urteko txostenaren bitartez, orobat zehazten dituelarik bertan udal administrazioak onartu ez dituen iradokizun edo erreklamazioak. Hala ere, aparteko txostenak ere egin ahal izango ditu gertakarien larritasunak edo premiak hala egitea eskatzen duenean.

85. artikulua.- Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Bereziaren eta Herritarren Defendatzaile edo Sindikoaren arteko koordinazioa

- Herritarren Defendatzaile edo Sindikoa batzordearen bilkuretara joango da, ahotsa bai baina botorik gabe.
- Batzordeak hala eskatzen dion gaietan, txostena egingo du Herritarren Defendatzaile edo Sindikoak, aldez aurretik, hamabost eguneko epean.
- Herritarren defendatzaile edo sindikoak, bere ekimenez, herritarren interesak aldeztu nahiz administrazio jarduera egokiak sustatze aldera komenigarritzat jotzen dituen kontuak aurkeztu ahal izango dizkio Iradokizun eta Erreklamazio Batzordeari.

86. artikulua.

Batzordea eratu ondoren, funtzionamendurako barne araudiaz hornituko da, zein Udalak onetsi beharko baitu.

Bere zereginak egiterik izan dezan, gobernu organo guztiak, baita udal administrazioak ere, behartuta daude iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Berezi horri laguntzera.

II. kapitulua. Udalaren Gardentasun Kontseilua

87. artikulua.- Definizioa

Publizitate aktiboaren arloan eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea babesteari dagokionez Gasteizko Udalak dituen betebeharrak eta konpromisoak betetzen diren zaintzeaz arduratuko den organo aholku-emailea izango da Udalaren Gardentasun Kontseilua.

88. artikulua.- Osaera

Pertsona hauek izango osatuko dute kontseilua:

- Sindikoa edo Herritarren defendatzailea.
- Udal kontu-hartzaile nagusia.
- Gizarte Kontseiluak izendatutako pertsona bat.

89. artikulua.- Zereginak

1.- Hauek izango dira Udalaren Gardentasun Kontseiluaren zereginak:

- a. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 66. artikuluan aipatzen den publizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen inguruko betebeharrak betetze-mailari buruzko txostena —Udalak urte naturaleko lehen hiruhilekoan egin beharrekoa— egitea.
- b. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko



2/2016 Legean jasotzen diren betebeharrak hobeto betetzeko gomendioak egitea, dela ofizioz, dela edozein partikularrek eskatuta.

- c. Udal organo edo erakundeek informazio publikorako sarbidea ukatzen dutelarik, kasu horiek aztertzea. Horretarako, Gasteizko Udaleko organo edo erakunde batek informazio publiko jakin batera sarbidea ukatzen duelarik, ebazpenaren kopia bat bidali beharko dio Udalaren Gardentasun Kontseiluari, edo administrazioaren isiltasunaren berri eman. Kontseiluak, sarbidea ukatzeko arrazoiak ikusirik, erabakiak berrikusteko gomendioak egin ahal izango ditu.
- d. Udal gobernuak gardentasunaren eta informazio publikorako sarbidearen alorrean bere jardunean hartzen dituen konpromisoen betetze-mailaren jarraipena eta ebaluazioa egitea, legezko betebeharrak areagokoak badira ere.

2.- Aurreko atalean aurreikusten diren zereginak ez dira izango Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 65. artikuluan aipatzen den "Euskal Autonomia Erkidegoko gardentasunaren eta informazio publikora iristearen kontseilu edo agintaritza independenteak edo kasuan kasuko legerian aurreikusten den organoak" izango dituen zereginen kalte.

90. artikulua.- Funtzionamendu-arau orokorrak

Udalaren Gardentasun Kontseilua, gutxienez ere, hiru hilean behin bilduko da.

Udalaren Gardentasun Kontseilua ez da inongo aginduren menpe egongo, eta ez du inongo agintarik emandako jarraibiderik jasoko. Era berean, bere betebeharrak autonomiaz eta burujabetasunez egingo ditu, bere irizpidearen arabera.

Kontseiluaren funtzionamendu zuzena bermatzeko beharrezko diren bitartekoak jarriko ditu Udalak.

Edozein udal langileren laguntza eskatu ahal izango du kontseiluak —laguntza teknikoa nahiz aholkularitza— eta, bereziki, Herritarrentzako Arreta eta Informazio Zerbitzuarena.

Kontseiluaren lehendakaria aho batez aukeratuko da kideen artetik, eta Sindikoaren edo Herritarren Defendatzailearen Bulegoko pertsona bat izango da idazkaria.

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen bulegoetan izango du egoitza kontseiluak.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Indargabetua

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Indargabetua

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA



Indargabetua

XEDAPEN IRAGANKORRAK

LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA

Indargabetua

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Indargabetua

HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Indargabetua

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Honako hauek indargabetuta geratuko dira:

- 1.- Araudi honen 10, 11, 26, 35, 36, 37, 46, 47, 48, 49, 50, 51, 52, 53, 54, 69, 75 eta 76. artikulua, 1., 2. eta 3. xedapen gehigarriak eta 1., 2. eta 3. xedapen iragankorrak.
- 2.- Sektore-kontseiluen eta lurralde-kontseiluen antolakuntza eta funtzionamendurako barne araudiak.
- 3.- Gasteizko Udalerriko Gizarte Kontseiluaren Antolakuntza eta Funtzionamendurako Barne Araudia.
- 4.- Herritarren Parte-hartzearen Araudi Organiko honetan xedatzen denaren kontrako diren maila bereko edo beheragoko xedapenak oro.

AZKEN XEDAPENETAN LEHENA. Udalbatzaren Araudi Organikoaren aldakuntza.

Artikulu hauek aldatzen dira:

20. artikulua. Kontrol-jardueran hau gehituko da: - Herritarren txanda, loturarik gabea

21. artikulua. Kontrol-jarduerako mozioei hau gehituko zaie: "eta herritarren ekimenak"

23. artikulua. Kontrol-jarduerako mozioei hau gehituko zaie: "eta herritarren ekimenak" eta - Herritarren txanda, loturarik gabea.

29, 36, 240.5 eta 259 artikuluetan, honela dioen lekuan:

"Herritar Erakundeen Udal Erregistroan izena emanda dauden herritar erakundeek", honela jarriko da: "dagozkien erregistro ofizialetan izena emanda dauden herritar-entitateek."



240.5 artikulua, honela geratuko da: “Udalbatzaren bilkura bakoitzean herritarren mozio edo ekimen bakarra eztabaidatuko da, eta loturarik gabeko herritarren txanda bakarra izango.”